

SEGMENTAZIOA

Produktu batek arrakasta edukitzeko ezinbestekoa da produktuaren sal-erosketa. Sal-erosketa antolatze eta dena ondo ateratzeko kontuan eduki behar dira bezeroei iristeko puntuak edo lekuak. Ez ditugu bezero berdinak lortuko herriko azokan jarriko bagina saltzen, edo Amazon bezalako webgune batean jarriko bagenu gure produktua, horregatik ondo aukeratu behar ditugu produktua saltzeko tokiak.

Gure aterki-ontzi elektrikoaren erosle nagusiak produktu hau erosi ahal duten pertsonak eta ordaintzeko prest daudenak izango dira, aterkiak lehortzeko arazoak dituen jendearen artean noski, hau da, dendak dituzten pertsonak, lokalentzat... Baita beraien etxeetan arazo bat eduki gabe aterkiak lehortu nahi dituzten pertsonentzat ere. Hau da, azken finean aterkiak lehortzeko erraztasunak nahi dituzten pertsonentzat eta honen prezioa ordaintzeko prest dauden pertsona edo enpresentzat dago zuzendua.

Aterki-ontzi hau leku askotan beharrezkoa izan daitekenez, ez dugu inor alde batera utzi nahi saltzeko momentuan, horregatik ez gara adin multzo zehatz batean bakarrik zentratuko, baina adibidez, ume txiki bati ez diogu horrelakorik salduko, ondorioz, helduei saltzea pentsatu dugu, etxea edo lana eduki dezaketelako eta beraientzat beharrezkoa izan daitekelako.

Generoari buruz ez da zuzenduta egongo genero zehatz bati, berdin du neska, mutila edo beste edozein identitate edukitzea, guztien eskura egongo da aterki-ontzia.

HERRIKO DENDAK: Herriko dendak izango dira bezeroetako bat, izan ere, askotan denda batera sartzen zarenean lur guztia bustita egoten da eta kartoiak jarri beharra izaten dute jendea ez irristatzeko. Horregatik, uste dugu beraiek bezeroetako bat izango direla gure produktuak beraien beharrak asetzen dituelako. Gainera herriko denda bateko mostradore batean jarriko dugunez herritarrek ikusi dezaten, errazagoa izango da bertan denda duten jendearen atentzioa deitzea.

ETXERAKO: Dendetatik aparte, beraien etxeetan aparatu hau jarri nahi dituzten pertsonak ere erosi ditzakete. Eta jendeari erraztasuna emateko, herriko dendaren batean edo bertakoak ez diren pertsonentzako amazonen ere eskuragarri egongo da. Horrela beraien arazoak konpondu ditzakete eta beraien etxeetako lurra lehor egon daiteke.

Beraz, gure bezeroak zeintzuk diren ikusi ondoren, ondorioztatu dugu ez dela masiboa izango, bertako jendeari zuzenduta dagoelako batez ere. Baina, Amazonen salduko dugunez ez diogu inorri atea itxiko, beti ere, beraiek bizi diren tokira bidali ahal badute Amazonekoek.